



ERANSKINA

2023. URTEKO ARAUGINTZA PLANAREN JARRAIPENAREN ETA BETETZE MAILAREN EBALUAZIOAREN MEMORIA.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedurari. 4. artikuluan xedatzen du, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Arabako Foru Aldundiak urteko araugintza plan bat onetsiko duela, eta, bertan, hurrengo urteko ekitaldian onesteko proposatu asmo dituen foru araugintzako ekimenak jasoko direla. 6. artikulua ezartzen du urte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen, Foru Gobernu Kontseiluak urteko txostena hartuko duela kontuan. Txosten hori arau garapeneraren arloan eskumena duen zuzendaritzak egingo du, eta 6/2023 Foru Dekretua aplikatuz onetsitako aurreko urteko Araugintza Planaren betetze maila jasoko du.

Azaldutako aginduen arabera, Foru Gobernu Kontseiluak, abenduaren 27ko 823/2022 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko Araugintza Plana onetsi zuen (2023ko AP). Aipatutako planaren betetze mailaren ebaluazioa egitea dagokio orain.

2023. urteko araugintza planaren gauzatzeari buruzko memoria hau Gobernantza Zuzendaritzako Arau Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuak egin du, inplikaturako sailen laguntzarekin, beren arau plangintzari buruz emandako informazioarekin.

Memorian zehazten dira, sail bakoitzeko, 2023ko APea sartutako arauak, eta zer izapidetze fasetan dauden, horri buruzko justifikazioa eta 2024ko urteko Araugintza Planean ekitaldi horretan onartu ez ziren 2023ko Urteko Araugintza Planean jasotako arauak sartzeko aurreikuspenari dagokion informazioa zehaztuz, hala badagokio. Halaber, 2023an Urteko Araugintza Planean aurreikusita egon gabe onetsitako foru arauen proiektuak, foru dekretuak eta foru aginduak zerrendatzen dira.

Informazio horri dagokionez, argitu behar da organo eskudunaren ebazpenaren bidez prozedura irekita duten proiektuak bakarrik jotzen direla hasizat, aurretiazko jarduketak gauzatu ahal izatea eragotzi gabe. 2023ko APea aurreikusi gabe izapidetutako araei buruzko atalari dagokionez, organo eskudunak behin betiko onetsi behar dituenak baino ez dira sartzen.

Nahasketarik ez sortzeko, ebaluazioak 2023ko APea aurreikusitako egitura organikoari jarraitzen dio, nahiz eta gaur egun Arabako Foru Aldundia Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuaren arabera, 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituenaren arabera, egituratuta dagoen.





DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Urteko Araugintza Planean sartuako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUAK	Foru Arau Proiektua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.	Hasita	Idazteko eta hausnarketa prozesuan, parte-hartze handienarekin eta berdintasunaren arloko kalitate estandarrak integratuta. Indarkeriaren, genero ikuspegia duten aurrekontuen, ekonomiaren eta fiskalitatearen arloko prestakuntza eta dinamizazio saioak egin dira. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Arau Proiektua, Arabako Lurralde Historikoaren Sektore Publikoa arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Beste arau ekimen batzuk lehenesteagatik atzeratu da. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Arau Proiektua, 2023ko maiatzaren 28an izango diren hauteskundeak direla eta, Estatuako Administrazio Orokorrak (Barne Ministerioa) eta Arabako Foru Aldundiak hauteskunde kudeaketa arloan duten lankidetzaz hitzarmena berrestekoa	Bukatuta	11/2023 Foru Araua, martxoaren 22koa, Estatuaren Administrazio Orokorren (Barne Ministerioaren) eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, 2023ko maiatzaren 28an egingo diren hauteskundeak direla eta hauteskunde kudeaketaren arlokoa, berrestekoa 2023ko martxoaren 31ko ALHAO, 38. zenbakia
FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko baliabideak antolatzeko prozedurak arautzen dituena	Izapidetzen hasi gabe	Beste foru unitate batzuk prestatzen eta ebaluatzen ari dira. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren Ahalordeteeen Erregistro Elektronikoa sortu eta arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Hainbat administrazio unitatek osatutako lantalde bat eratu da, hura lantzeko. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, Ordezkaritzen Erregistroa sortu eta arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Beste arau ekimen batzuk lehenesteagatik atzeratu da. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 3ko 37/2011 Foru Dekretua, onespina ematen diona Arabako Foru Administrazioako agirien erregistroen erregelamenduari	Izapidetzen hasi gabe	Aztertzen ari dira, beste gai batzuk arautzeari lotuta dagoelako, hala nola foru sektore publikoa eta ahalordeteeen erregistroa.



FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretua, Foru Aldundiaren eta beste administrazio eta erakundeen artean izenpetutako Lankidetzaz Hitzarmenaren Erregistroa behin betiko arautu duena, eta erregistro hori Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zuzendaritzako Administrazio Kudeaketako Zerbitzuari atxikitzen zaiona	Izapidetzen hasi gabe	Ekimenaren irismena zabaltea aurreikusi dute, Hitzarmenaren Erregistro Elektronikoaren eta Arabako Foru Aldundiak parte hartzen duen administrazio arteko organoen erregulazioa integratuz.
-----------------------	--	-----------------------	---

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA			
Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUAK	Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2023 Foru Dekretua, otsailaren 28koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedurari	Bukatuta	Erregulazioa eguneratzeko eta hobetzeko beharra, bai eta prozedura ordenatuagoa, arinagoa eta eraginkorragoa ezartzeko beharra ere, erregulazio onaren printzipioei lotuta. 2023ko martxoaren 8ko ALHAO, 28. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2023 Foru Dekretua, martxoaren 28koa. Onestea Arabako Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuan erabiliko diren baliabide materialen zehaztapena	Bukatuta	Hauteskundearen kudeaketa. 2023ko apirilaren 4ko ALHAO, 40. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 14/2023 Foru Dekretua, apirilaren 25koa. Onestea Arabako Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuko baliabide materialak zehazten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 9/2023 Foru Dekretuaren aldaketa	Bukatuta	Hauteskundearen kudeaketa. 2023ko maiatzaren 2ko ALHAO, 50. zenbakia



FORU DEKRETUAK	Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2023 Foru Dekretua, apirilaren 4koa. Onestea hauteskunde gastuengatik dirulaguntzen aurrerakinak ematea Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak lortu eta Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoei eta hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteei	Bukatuta	Hauteskundeen kudeaketa. 2023ko apirilaren 10eko ALHAO, 42. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 19/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa. Onestea Kontseiluaren apirilaren 4ko 11/2023 Foru Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez onesten baita hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntzen aurrerakinak ematea Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak lortu zituzten eta Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetan lehiatzen diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle elkarteei	Bukatuta	Hauteskundeen kudeaketa. 2023ko maiatzaren 29ko ALHAO, 62. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Onestea hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntza eta aurrerakin araubidea, 2023an Batzar Nagusietarako egindako hauteskundeen emaitzen arabera	Bukatuta	Hauteskundeen kudeaketa. 2023ko abuztuaren 7ko ALHAO, 92. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 21/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 30ekoa. Onespena ematea Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetan hauteskunde batzordeetako kideek, ordezkariak eta laguntzaileek kobratu beharreko haborokinei	Bukatuta	Hauteskundeen kudeaketa. 2023ko ekainaren 7ko ALHAO, 66. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa. Arabako Foru Aldundiaren Barneko Informazio Sistema sortzea eta arautzea	Bukatuta	Arauhausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzea. 2023ko ekainaren 16ko ALHAO, 70. zenbakia

**ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA****Urteko Araugintza Planean sartutako ekimenak**

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Aldaketa teknologikoak ezartzearekin lotutako arrazoiengatik atzeratuta.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko funtzionarioen enplegu-baldintzak onesten dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2023 Foru Dekretua, apirilaren 18koa. Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen enplegu baldintzak onesten dituen uztailaren 26ko Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2017 Foru Dekretuaren aldaketa onestea. 2023ko maiatzaren 3ko ALHAO, 51. zenbakia
	Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko zazpigarren aldirako Plana arautzen duena (2023-2027)	Izapidetzen hasi gabe	Beste administrazio batzuek aplikazio informatiko bat garatzeko zain. 2024ko Araugintza Planean sartua.



OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Urteko Araugintza Planean sartuako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUAK	Foru Arau Proiektua, 2024rako aurrekontua betearaztekoa	Erretiratuta hasieran onetsitako proiektua	Foru Gobernu Kontseiluaren 824/2023 Erabakia, abenduaren 14koa. Atzera botatzea Arabako Lurralde Historikoko 2024ko ekitaldirako aurrekontua betearazteko foru arau proiektua, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 14ko 722/2023 Erabakiaren bidez onetsia
	Foru Arau Proiektua, 2022ko ekonomia ekitaldiari dagokion Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrari buruzkoa	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 387/2023 Erabakia, ekainaren 22koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2022ko ekitaldiko Kontu Orokorra onesten duena eta Arabako Lurralde Historikoko 2022ko ekonomia ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko foru arauaren proiektua onesten duena.
	Foru Arau Proiektua, 2024ko zerga neurriei buruzkoa	Bukatuta	26/2023 Foru Araua, abenduaren 22koa, 2024. urterako zerga neurriei buruzkoa . 2023ko abenduaren 29ko ALHAO, 150. zenbakia
FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, 2023rako araubide erraztuko moduluak eguneratzen dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2023 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa. Onespena ematea balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztua arautzeari 2023rako. 2023ko martxoaren 1eko ALHAO, 25. zenbakia
	Foru Dekretua, 2023ko lehentasunezko jarduerak onesten dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2023 Foru Dekretua, urriaren 31koa. Onestea interes orokorreko 2023rako xedeen eremuko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, bat etorritik irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak ezarritakoarekin 2023ko azaroaren 8ko ALHAO, 131. zenbakia
	Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira ibilgailuen, autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraibideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2023 Foru Dekretua, martxoaren 7koa. Onespena ematea autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioei, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko eokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraibideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako. 2023ko martxoaren 15eko ALHAO, 31. zenbakia



FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira ondare-elementuak eguneratzeko koefizienteak, PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren ondare irabaziak edo galerak kalkulatzeko	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa. Onestea 2023ko ekitaldian egingo diren eskualdaketei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak. 2023ko urtarrilaren 25eko ALHAO, 10. zenbakia
	Foru Dekretua, TicketBAIren ezarpena garatzen duena	Bukatuta	Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 714/2023 Foru Agindua, azaroaren 3koa. Onestea maiatzaren 6ko 260/2022 Foru Agindua eta abenduaren 23ko 774/2022 Foru Agindua aldatzea, TicketBAIko alta fitxategiaren diseinuari dagokionez.
	Foru Dekretua, ondasunen inbentarioaren funtzionamendu araudia arautzen duena	Instrukzio izapidea	Arau testuaren proposamena onetsi ondoren, nahitaezko txostenak egiten ari dira.



OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Onetsitako eta Urteko Araugintza Planean sartu gabeko ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUAK	20/2023 Foru Araua, azaroaren 15ekoa, Hondakinak zabortegetan Uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko Zergari buruz	Bukatuta	Arabako zerga sisteman sartzea hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga, Estatuak sortua eta apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, VII. tituluaren II. kapituluaren arautua. 2023ko abenduaren 20ko ALHAO, 147. zenbakia
	24/2023 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra aldatzeko, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioan (zuzentarau horren bidez, Fiskalitate arloko Administrazio Lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen da); eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua aldatzekoa	Bukatuta	DAC 7ren nahitaezko transposizioa egitea, eta Europako Batzordeak egindako epatzeari erantzutea, Espainiatik kanpo erregistratutako izatezko batasunei aplikatutako zerga araubideko kapitalen zirkulazio askearekin bateraezina izan daitekeelakoan. 2023ko abenduaren 29ko ALHAO, 150. zenbakia
	23/2023 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, Fortuna Handien gaineko Aldi Baterako Elkartasun Zerga arautzen duena	Bukatuta	Arabako Lurralde Historikoan Fortuna Handien gaineko Aldi Baterako Elkartasun Zerga ezarri eta arautzea; Ekonomia Itunaren azken aldaketan itundutako zerga. 2023ko abenduaren 29ko ALHAO, 150. zenbakia
	Foru Arauaren Aurreproiektua, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, sozietateen gaineko zergarena, aldatzen duena, kultura sustatzeko zerga pizgarriari dagokienez.	Bukatuta	9/2024 Foru Araua, maiatzaren 22koa, kultura sustatzeko zerga pizgarriak eguneratzen eta gehitzen dituena. 2024ko ekainaren 7ko ALHAO, 64. Zenbakia.



<p>FORU DEKRETUAK</p>	<p>Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2023 Foru Dekretua, abenduaren 19koa. Onespena ematea honako hauek aldatzeari: 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituena; 71/2008 Foru Dekretua, uztailaren 8koa, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituena, eta 111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra</p>	<p>Bukatuta</p>	<p>Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziari eta hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergari buruz itundutako azken zergei lotutako lurralde erregistro berriak ezartzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak sartzea.</p> <p>Urgentziazko eta segurtasun juridikoko arrazoiak direla eta, arau-erreferentziak eguneratzea eta foru-araudia Estatuko eta Europar Batasuneko xedapenekin lerrokatzea.</p> <p>2023ko abenduaren 27ko ALHAO, 149. Zenbakia.</p>
------------------------------	---	-----------------	--



FORU DEKRETUAK	Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2023 Foru Dekretua, abenduaren 26koa. Onespina ematea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak aldatzeari.	Bukatuta	Urteko araugintza planean aurreikusita dagoen atxikipenen taula berri bat premiaz onestea, 2024rako Zerga Neurri buruzko Foru Arauak onetsitako zergaren tarifa berrira egokitzeko. 2023ko abenduaren 29ko ALHAO, 150. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 38/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Onespina ematea aldatzeari maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Lurralde Historikoko dirubilketaren arautegi orokorra	Bukatuta	«SEPA Erregelamenduan» jasotako betebeharrak betetzea; azken batean, Europar Batasunaren tratatuetan ezarritako legezko aginduak betetzeko. 2023ko abuztuaren 7ko ALHAO, 92. zenbakia
FORU DEKRETUAK	Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 30ekoa. Foru Onestea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegia onetsi zuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren aldaketa, baita Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2023ko araubide berezi erraztua onetsi zuen otsailaren 21eko 4/2023 Foru Dekretuarena ere	Bukatuta	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eremuan araubide erkideko lurralderako ezarritako atxikipen eta konturako sarrera tasa berriak sartzea, Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera. Urgentziatzko eta segurtasun juridikoko arrazoiak direla eta, ahalik eta lasterren luzatzea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide sinplifikatuari uko egiteko 2023ko epemuga. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 20/2005 Foru Dekretua indargabetzea. Dekretu horren bidez, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari lotuta dauden ibilgailu erabilien eskualdaketen autolikidazioari buruzko 620 inprimaki eredia eta inprimaki horren edukia onesten dira. Horrek ondorioak izango ditu Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari lotuta dauden ibilgailu erabilien eskualdaketen autolikidazioari buruzko 620-tv eredia onesten duen Foru Agindua indarrean jartzen denetik aurrera. Horrek aipatutako eredia ordeztuko du. 2023ko ekainaren 7ko ALHAO, 66. zenbakia



FORU DEKRETUAK	Foru Gobernu Kontseiluaren 17/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa. Onestea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onetsi zuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren aldaketa	Bukatuta	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua egokitzea zerga horren foru arauan izandako aldaketetara, eta erregelamendu horretan hobekuntza tekniko batzuk egitea. 2023ko maiatzaren 17ko ALHAO, 57. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 24koa. Onestea alda dadila zenbait autolikidazio eta aitorten aurkezteko eta ordaintzeko epea	Bukatuta	Autolikidazioak eta aitorten aurkezteko epea harmonizatzea. 2023ko urtarrilaren 27ko ALHAO, 11. zenbakia
FORU AGINDUAK	Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 111/2023 Foru Agindua, otsailaren 21ekoa. Onespina ematea gasolio profesionala erabiltzearen ondorioz hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partzialerako eskubidea duten errepideko garraioko enpresei zuzenduta dagoen zenbait energia produktoren prezioa ordaintzeko aparteko eta aldi baterako laguntza kudeatu eta ordaintzeko prozedurari	Bukatuta	Abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako erabilera profesionaleko gasolioagatik Hidrokarburoen gaineko Zergaren zati bat itzultzeko eskubidea duten errepideko garraio enpresentzako produktu energetiko jakin batzuen prezioa ordaintzeko ezohiko eta aldi baterako laguntza kudeatzea eta ordaintzea, hura kudeatzea eta itzultzea Arabako Foru Aldundiari dagokionean. 2023ko martxoaren 1eko ALHAO, 25. zenbakia
	Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 90/2023 Foru Agindua, otsailaren 10ekoa. Onestea diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako 20/2022 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako laguntza eskatzeko prozedura (20/2022 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriena eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzekoa)	Bukatuta	Abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 74. artikuluan aurreikusitako laguntza eskatzeko prozedura arautzea. Laguntza horren onuradun izango dira ohiko bizilekua Arabako Lurralde Historikoan duten eta artikulua horretan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak. 2023ko otsailaren 20ko ALHAO, 21. zenbakia



LURRALDE OREKAREN SAILA			
Urteko Araugintza Planean sartuako ekimenak			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, Arabako tokiko sektore publikoko erakundeen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena	Izapidetzen hasita	Testua idatzita dago.
	Foru Dekretua, Arabako toki sektore publikoaren arloan urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak arautzen dituena	Izapidetzen hasita	Jendaurrean jartzeko fasea.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Arabako Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko eta Salbamendurako Foru Plana	Izapidetzen hasi gabe	Testua idazteko fasea.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Baso Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Plan Berezia	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 394/2023 Erabakia, ekainaren 22koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko urteko planari. 2023ko uztailaren 5eko ALHAO, 78. zenbakia



BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA			
Urteko Araugintza Planean sartuako ekimenak			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUAK	Foru Arau Proiektua, Arabako Mugikortasunaren Agintaritzaren Partzuergoa sortzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Arabako Mugikortasun Agintaritza sortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean sinatutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren gainerako kideekin adosteko zain. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Arau Proiektua, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzaren hitzarmena berrestekoa, "N-240 errepidean Ubideko udalerrirako sarbideen hegoaldeko elkargunea berrantolatze eta hobetzeko proiektu"ko obrak egiteko	Bukatuta	12/2023 Foru Araua, martxoaren 29koa, berresten duena Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, N-240 errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeko eraikuntza proiektuko obrak gauzatzeko. 2023ko apirilaren 14ko ALHAO, 44. zenbakia



GIZARTE POLITIKEN SAILA

Urteko Araugintza Planean sartuako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Aztertzen ari dira. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 9ko 51/2018 Foru Dekretua, Pertsona Helduen Tutoretza eta Defentsa Judizialeko Batzordea eratu, osatu eta abian jartzea onesten duena	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2024 Foru Dekretua maiatzaren 7koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Foru Batzordea sortu eta arautzeari, beren ahalmen juridikoa egikaritzeko. 2024ko maiatzaren 22ko ALHAO, 57. Zenbakia.
	Foru Dekretua, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Arabako Lurralde Historikoko egoitza zentroen oinarrizko estatutua arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Aztertzen ari dira. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretua, autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemako prestazio ekonomikoak arautzen dituena Araban: mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.	Izapidetzen hasi gabe	Aztertzen ari dira. 2024ko Araugintza Planean sartua.



FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretua, mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta, halakorik izanez gero, Arabako Gizarte Zerbitzuen diru prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituena	Izapidetzen hasi gabe	Aztertzen ari dira. Aldundia, osasun eta hezkuntza sistemekin lankidetzan eta koordinaturik, foru dekretu berri baten zirriborroa zehazten ari da Arabako Lurralde Historikoko arreta goiztiarraren prestazioa arautzeko, Arabako Foru Aldundiak bere erakunde autonomoaren bidez (GOFE) duen eskumenari dagokionez, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan xedatutakoa. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, gizarteratzeko zerbitzuetara sartzea arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Aztertzen ari dira. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 31/2020 Foru Dekretua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak onesten dituena	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 53/2023 Foru Dekretua abenduaren 26koa. Onespina ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoak onesten dituen irailaren 29ko 31/2020 Foru Dekretua aldatzeari. 2023ko abenduaren 29ko ALHAO, 150. Zenbakia.
	Foru Dekretua, mendekotasun egoera aitortuta ez duten pertsonen sarbide eta lekualdatze araubidea arautzen duena.	Izapidetzen hasi gabe	Beste arau ekimen batzuk lehenesteagatik atzeratu da.
	Foru Dekretua, Besteautonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistemaren (AMAS) prestazio ekonomikoen zenbatekoak arautzen dituena: laguntza pertsonalerako eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	Izapidetzen hasi gabe	Eranskina eta zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoen zenbatekoak eguneratuta, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 5/2023 Foru Dekretuaren bidez. Gaur egun, foru dekretu berri baten zirriborroa izapidetzen ari da, eranskinean uztailaren 18ko 675/2023 Errege Dekretuan jasotako gutxieneko zenbatekoak sartuta, eta LPPEren zenbatekoak handituz eguneratzen ari dira. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, bizitza independenterako prestazioak eta bizitza independentea egiten laguntzeko prestazio ekonomiko berria eskuratzeko baldintzak arautzen dituena.	Izapidetzen hasita	Testua idazteko fasea. 2024ko Araugintza Planean sartua.



GIZARTE POLITIKEN SAILA

Iniciativas aprobadas y no incluidas en el Plan Anual Normativo

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUAK	Foru Gobernu Kontseiluaren 52/2023 Foru Dekretua, abenduaren 26koa. Onestea II. graduko pertsoneri laguntza pertsonala emateko prestazio ekonomikoaren gehieneko zenbatekoa eguneratzea, baldin eta Arabako Lurralde Historikoan ondoz ondoko 3 urtetan erroldatuta egon direla egiaztatzen badute, bai eta autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistemaren prestazio ekonomikoen gutxieneko zenbatekoak ere	Bukatuta	2023ko Araugintza Planaren aurreikuspena egin ondoren sortutako beharra. 2023ko abenduaren 29ko ALHAO, 150. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2023 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa. Onespena ematea Arabako Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak eguneratzeari	Bukatuta	2023ko Araugintza Planaren aurreikuspena egin ondoren sortutako beharra. 2023ko martxoaren 3ko ALHAO, 26. zenbakia



NEKAZARITZA SAILA

Urteko Araugintza Planean sartuako ekimenak

ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, abere arrazak hobetzeko, animalien osasunerako eta animalien ekoizpenerako programak kudeatzeko abeltzaintza laguntzak arautzen dituena.	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 195/2023 Erabakia, apirilaren 12koa, Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, abereen osasunerako eta abereen ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzeko laguntzen 2022ko deialdia onesten duena. 2023ko apirilaren 17ko ALHAO, 45. zenbakia
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiatzeko hazitarako zaldiak eskuratzeko laguntzak arautzen dituena.	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 30ekoa. Onespina ematea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiatzeko 'Euskal Herriko Mendiko Zaldia' arrazako hazitarako zaldiak eskuratzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileei, bai eta 2023ko deialdiari ere. 2023ko ekainaren 7ko ALHAO, 66. zenbakia
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiatzeko beren osasun arriskuak estaltzen dituzten abeltzaintza aseguruak kontratatzen laguntzeko dirulaguntzak arautzen dituena	Bukatuta	121/2023 Foru Agindua, apirilaren 4koa. Onestea lurralde historiko honetako abeltzaintza ustiatzeko beren osasun arriskuak estaltzen dituzten abeltzaintza aseguruak kontratatzeko 2023ko dirulaguntzen deialdia. 2023ko maiatzaren 8ko ALHAO, 53. zenbakia
	Foru Dekretua, abereak larreetara eramateko administrazio betekizunak arautzen dituena	Izapidetzen hasi gabe	Ekimena baztertua izan da ez delako beharrezkoa.
	Foru Dekretua, artzaintza estentsiboan prebentzio neurriak ezartzeko laguntzak arautzen dituena	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 33/2023 Foru Dekretua, ekainaren 20koa. Onestea Kontseiluaren uztailaren 12ko 32/2022 Foru Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez onetsi baitziren Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza



FORU DEKRETUAK			ustiategietan ganadua basafaunaren erasoetatik babesteko prebentzio neurriak ezartzera bideratutako laguntzak emateko oinarri arautzaileak, eta onestea laguntza horien 2023rako deialdia. 2023ko ekainaren 30eko ALHAO, 76. zenbakia
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan erlezaintzarako laguntzak arautzen dituen	Izapidetzen hasi gabe	Beste administrazio batzuek Erlezaintza Plan Nazionalaren transposizioa noiz egingo zain. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko REGA erregistroan inskribatzeko baldintzak eta prozedura arautzen dituen	Izapidetzen hasi gabe	Beste administrazio batzuek araudia noiz eguneratuko zain.
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan baso suteak prebenitzeko planak idazteko laguntzak arautzen dituen	Izapidetzen hasi gabe	Ekimena baztertua izan da, bere edukia Baso Laguntzen Planean sartu delako.
	Foru Dekretua, onura publikoko mendietan egiten diren kirol edo aisialdi proba kolektiboak arautzen dituen	Izapidetzen hasi gabe	Atzeratu egin da, ikuspegi zeharkakoagoa eskaintzeko, Nekazaritza eta Ingurumen Sail zaharrak osatzen dituen Sailaren egitura organiko berriaren ondorioz.
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan suaren erabilera arautzen duena	Bukatuta	219/2023 Foru Agindua, ekainaren 23koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan suaren erabilera arautzen duen foru aginduari 2023ko ekainaren 28ko ALHAO, 75. zenbakia
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 30eko 22/2020 Foru Dekretua, mahasti aseguruak kontratatzekeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onesten dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 97/2023 Erabakia, otsailaren 28koa. Onespena ematea nekazaritzako mahastien aseguruak kontratatzekeko laguntzen 2023ko kanpainako deialdiari 2023ko martxoaren 10eko ALHAO, 29. zenbakia
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretua, mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onesten dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 76/2023 Erabakia, otsailaren 21ekoa. Onespena ematea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen 2023ko deialdiari. 2023ko martxoaren 1eko ALHAO, 25. zenbakia



FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 17ko 13/2015 Foru Dekretua, Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuko Laborategiko analisei eta beste zerbitzu batzuei aplikatzen zaizkien prezio publikoak onesten dituen	Izapidetzen hasi gabe	Aztertzen ari dira. Analisi eskaerak metodo telematikoen bidez aurkezteko aplikazio berriak garatzeko eta prezio jakin batzuk berrikusteko zain. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoaren Mahasti eta Olibadi Baliotsu eta Nabarmenen Katalogoa arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	Aztertzen ari dira. Ekimena mahasti zaharren erregistroarekin bilduko duen ikuspegia aztertzen ari dira. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretua, mahatsaren sitsari (Lobesia Botrana) aurka egiteko proiektuak sustatzeko laguntza arautzen duten oinarriak onesten dituen.	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 18/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 15ekoa. Onestea mahats mordoaren sitsaren aurkako estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren aldaketa 2023ko maiatzaren 24ko ALHAO, 60. zenbakia
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 26ko 3/2021 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroaren araudia onesten duena.	Izapidetzen hasi gabe	Mahastizaintzako potentzialarekin eta mahasti esperimentalekin, besteak beste, lotutako araudia eguneratu gabe dago. 2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, nekazaritzako ustategietan inbertsioak egiteko laguntzak arautzen dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 27/2023 Foru Dekretua, ekainaren 6koa. Onestea nekazaritza ustategietan inbertitzeko laguntzen oinarri arautzaileak, bai eta 2023ko laguntza lerro horren deialdia ere. 2023ko ekainaren 9ko ALHAO, 67. zenbakia
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak edo berezko beste muga batzuk dituzten zonetako nekazaritza ustategiei laguntzeko oinarriak arautzen dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2023 Foru Dekretua, ekainaren 20koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoaren berezko muga naturalak eta beste muga naturalak eta beste muga jakin batzuk dituzten zonetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, baita 2023rako deialdia ere. 2023ko ekainaren 28ko ALHAO, 75. zenbakia



FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Planaren baitan nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen oinarriak arautzen dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2023 Foru Dekretua, ekainaren 6koa. Onestea 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan nekazari gazteak ezartzera bideratutako laguntzen oinarri arautzaileak, bai eta 2023ko laguntza lerro horren deialdia ere 2023ko ekainaren 9ko ALHAO, 67. zenbakia
	Foru Dekretua, ustiattegietara iristeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzak arautzen dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 2koa. Onestea landa bideetarako laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntzen 2023ko deialdia. 2023ko maiatzaren 12ko ALHAO, 55. zenbakia
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 2ko 32/2017 Foru Dekretua, onartzen dituen Arabako landa bideak onik zaintzeko "Laguntzak gauzatan" eran ematen diren laguntzak arautzen dituzten oinarriak	Izapidetzen hasi gabe	2023ko deialdia foru agindu bidez argitaratzera mugatutako jarduketak.
	Foru Dekretua, nekazaritzako ingurumen eta klimarako laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak arautzen dituen, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren esparruan	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2023 Foru Dekretua, ekainaren 20koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatik laguntzen oinarri arautzaileak, baita 2023rako deialdia ere 2023ko ekainaren 28ko ALHAO, 75. zenbakia
	Foru Dekretua, nekazaritzako ustiattegietan energia berriztagarriak erabiltzeko laguntzak arautzen dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 2koa. Onestea abeltzaintza ustiattegietan plaka fotovoltaikoetatik datorren energia berriztagarria autokontsumitzeko eta biltegitatzeko laguntzen programaren oinarri arautzaileak eta laguntzen 2023ko deialdia. 2023ko maiatzaren 10eko ALHAO, 54. zenbakia
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan nekazaritzako eta abeltzaintzako azokak antolatu eta egiteko laguntzak arautzen dituen	Bukatuta	63/2023 Foru Agindua, otsailaren 17koa. Onestea nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeke eta egiteko laguntzen programarako 2023ko deialdia eta kreditu erreserba. 2023ko otsailaren 27ko ALHAO, 24. zenbakia
	Foru Dekretua, nekazaritzarako baliabide hidrikoen kudeaketarako laguntzak arautzen dituen	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 30/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa. Onestea ur baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia.



FORU DEKRETUAK			2023ko ekainaren 19ko ALHAO, 71. zenbakia
	Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintzako eta nekazaritzako sektoreari laguntzeko ezohiko laguntzak arautzen dituen, Ukrainaren aurkako erasoaren ondoren ekonomia babesteko	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 44/2023 Foru Dekretua, urriaren 17koa. Onespena ematea lehortearen eta baldintza klimatikoaren eta arazo horiek Errusiak Ukraina inbaditu izanaren ondorioz larriagotzearen eraginpeko Arabako nekazaritza sektorearen aldeko zenbait aparteko laguntza lerroren oinarri arautzaileei eta haien deialdiari 2023ko urriaren 25eko ALHAO, 126. zenbakia

NEKAZARITZA SAILA			
Iniciativas aprobadas y no incluidas en el Plan Anual Normativo			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUAK	Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2023 Foru Dekretua, otsailaren 28koa. Onspena ematea Basogintzarako Laguntza Plana arautzeko oinarriari eta 2023rako deialdiari.	Bukatuta	2023ko martxoaren 3ko ALHAO, 26. zenbakia



KULTURA ETA KIROL SAILA			
Urteko Araugintza Planean sartuako ekimenak			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUAK	Foru Arau Proiektua, Arabako Lurralde Historikoko jarduera arkeologiko eta paleontologikoak arautzen dituena	Aurretiatzko jarduketak	Testua idazteko fasean, aurretiatzko kontsulta publikoaren ondoren.
	Foru Arau Proiektua, titulartasun pribatuko kultura ondasun babestuen gaineko bisita publikorako eskubidea arautzen duena	Aurretiatzko jarduketak	Aztertzen ari dira, aurretiatzko kontsulta publikoa egin ondoren.
FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, Kultura Etxeak antolatutako kultur jardueren prezio publikoak arautzen dituena	Izapidetzen hasi gabe	Beste arau ekimen batzuk lehenesteagatik atzeratu da.
	Foru Dekretua, Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak xedatzen dituena	Izapidetzen hasi gabe	Beste arau ekimen batzuk lehenesteagatik atzeratu da. 2024ko Araugintza Planean sartua.



KULTURA ETA KIROL SAILA			
Iniciativas aprobadas y no incluidas en el Plan Anual Normativo			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU DEKRETUAK	Foru Gobernu Kontseiluaren 20/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa. Onespina ematea Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak egikaritzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onesten dituen Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretua aldatzeari.	Bukatuta	Interes publikoko arrazoi larriak eta Europako Batzordeak ezarritako baldintza berrien ondoriozko gerora sortutako inguruabarrak, aurretik aurreikusi ezin izan zirenak. 2023ko maiatzaren 29ko ALHAO, 62. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 43/2023 Foru Dekretua, irailaren 26koa. Onestea Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak eta 2023rako deialdia	Bukatuta	Kirol modalitateen kasuistika desberdinak, kirol federazioek beren lehiaketetan egiten dituzten aldatetako eta hiru foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean irizpideak koordinatu beharra. 2023ko urriaren 4ko ALHAO, 117. zenbakia
	Foru Gobernu Kontseiluaren 37/2023 Foru Dekretua uztailearen 26koa Onespina ematea TAE Araba, Arte Eszenikoen Tailerrarekin lotutako zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoei	Bukatuta	Kudeaketa modalitate honen lehenengo ikasturtea igaro ondoren antzemandako gabeziak eta hobetu beharreko eremuak 2023ko abuztuaren 7ko ALHAO, 92. zenbakia



INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA			
Iniciativas incluidas en el Plan Anual Normativo			
ARAU MOTA	EKIMENA	IZAPIDETZE FASEA	JUSTIFIKAZIOA
FORU ARAU PROIEKTUAK	Foru Arau Proiektua, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzaz hitzarmena berresteko, «Asfalto naturalen meatze paisaiak eta Vasco-Navarroko bide berdea» proiekturako	Bukatuta	21/2023 Foru Araua, azaroaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako administrazio arteko hitzarmena berresteko, 'Asfalto naturalen meatze paisaien eta Vasco-Navarro bide berdearen HTJP' izeneko proiektua gauzatzeko, Europar Batasunaren Next Generation EU Funtsek finantzatutako Berreskuratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2023ko abenduaren 22ko ALHAO, 148. zenbakia
FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, basaespezieen argazkigintza arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 2ko 51/2011 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko ingurumen zerbitzuen ordainketei eta lortu gabeko irabazien konpentsaziozko ordainketei dagozkien oinarri arautzaileen aldaketa onesten duena.	Izapidetzen hasi gabe	2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, hondakin organikoak biltzeko laguntzak arautzen dituena	Bukatuta	Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko dirulaguntza lerro baten oinarri arautzaileak. 2023ko abuztuaren 11ko ALHAO, 94. zenbakia
	Foru Dekretua, abeltzaintzako ustategien titularrei otso eta putre erasoek etxeko aztegiari eragindako kalteengatik eman beharreko kalte ordainak arautzen dituena	Izapidetzen hasi gabe	2024ko Araugintza Planean sartua.



FORU DEKRETUAK	Foru Dekretua, eremu babestuetako eskalada arautzen duena	Izapidetzen hasi gabe	2024ko Araugintza Planean sartua.
	Foru Dekretua, zebra muskuilua desinfektatzeko Uribarri Ganboako instalazioan aplikatu beharreko prezio publikoak arautzen dituena	Izapidetzen hasi gabe	Ekimena baztertu egin da, ez delako beharrezkoa, <i>Dreissena polymorpha</i> espeziea Ebroren arroan oso azkar hedatu delako.
	Foru Dekretua, mendi lasterketak eta mendiko kirol ekitaldiak arautzen dituena	Izapidetzen hasi gabe	2024ko Araugintza Planean sartua.